



ACT- MC-2018/0018

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN 1. GUTUN-AZALAK IREKITZEA

Gai-zerrenda: San Lorentzo-larreko tuneleko Iruñako noranzkoko hodian (A-15 autobidea) estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko (2004/54/CE Direktiba) proiektuko obrak zuzentzeko kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen 1.gutun-azalak irekitzea.(3-IN-21/2017-DO)

Eguna: 2018ko apirilaren 6a

Hasiera ordua: 09:00

Amaiera ordua: 09:15

Tokia: Bide Azpiegiturarako Departamentuaren Erabilera anitzeko 2.1 gela (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Mikel Uribebarria Barrena, Errepideetako zuzendari nagusiaren orde.

Bokalak: Iñigo Zufiria Zatarain, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua.
Arantza Etxebarria Labayen, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.
Miren Etxezarreta Garmendia, Departamentuko idazkari teknikoaren orde.

Idazkaria: Miguel Fonseca de la Rosa, Kontratazio Zerbitzuko burua.

Goian aipatutako leku eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da, lizitazioan aurkeztutako eskaintzen kalifikazioa egiteko.

Ekintza honetarako mahaiburuak Miren Etxezarreta Garmendia izendatu du bokala izateko departamentuko idazkari teknikoaren orde, administratibo berezien agiriko 44.baldintzak dioen arabera.

44.Baldintza:

4.- *Kargua hutsik badago, edo titularra gaixorik edo kanpoan badago, arrazoi justifikaturen bat izanik, ordezkapen hauek ezartzen dira Kontratazio Mahaian parte hartzeko:*

- Mahaiburua: Titularren orde, kide iraunkorrak arituko dira, agiri honen karatulan azaltzen den hurrenkera berberari jarraituz.
- Bokalak: Bokalen orde, titularrak atxikita dauden zerbitzuetako edo kudeaketa unitateetako funtzionarioek jardungo dute, edo, hori ezin denean, titularren Zuzendaritzako beste zerbitzu batzuetako funtzionarioek; eta mahaiburuak izendatuko ditu.
- Idazkaritza: Kontratazio Zerbitzuari atxikitako funtzionario batek egingo du ordezkapena edo, bestela, Idazkaritza Teknikoari atxikitako batek, eta mahaiburuak izendatuko du.

Behin eginda izendapena Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrek agintzen duten eran, "gaitasuna eta kaudimena" izeneko 1. gutun-azalak irekitzearekin hasi da egintza, garaiz eta forman kalifikatzeko aurkeztutako dokumentazioa. Enpresa hauek aurkeztu dute eskaintza:



Hurrenkera	Lizitatuzaileak	Erregistro zenbakia
1	ASMATU SLP + GEOCONSULT ESPAÑA INGENIEROS CONSULTORES S.A.	2018/1.422
2	SENER INGENIERIA Y SISTEMAS S.A. + MEIK INGENIERIA Y CONSULTORIA S.L. + GIRDER INGENIEROS S.L.P.	2018/1.894
3	IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE S.A.U.	2018/1.900
4	SAITEC SA	2018/2.022

Enpresa guztiek, gaitasun eta kaudimenaren gaineko dokumentazioa. Aipatu aurretiko kalifikazioa egitean akats edo hutsune batzuk antzeman ditu Kontratazio Mahaiaik:

UTE ASMATU SLP + GEOCONSULT ESPAÑA INGENIEROS CONSULTORES SA ABE enpresak aurkeztutako dokumentazioan: ASMATU SLP enpresak ez du adierazi Gipuzkoako foru administrazioko eta foru sektore publikoko gainerako entitateetako kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua betetzeko konpromisoa beteko duela, eta VI.Eranskinean bi enpresek ez dute adierazi zein teknikariak izaten duen HE3 maila, C1(Europako Erreferentzia Markoa) edo EGA .

Hori dela eta, hiru egun baliodun emango zaizkie esandakoa zuzentzeko, 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaz onartutako Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorrak 81.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Eta horrela jasota gera dadin egin da akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da

Donostian, 2018ko apirilaren 6an

MAHAIBURUAren ordez,

Sin.- Mikel Urribetxebarria Barrena

IDAZKARIA

Sin.- Miguel Fonseca de la Rosa